

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin-behineko onespena ematea hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasaren 2019ko bigarren hiruhilekoko zerga eroldari**

Nik, Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko otsailaren 27an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman ziola hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta deuseztatzeko zerbitzuaren tasa ordaindu behar dutenen 2019ko bigarren hiruhilekoko eroldari (Esp.: 2019/1/S328).

Espediente hori ikusgai egongo da udalaren kontuhartzaitza atalean 15 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesa duen orok aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak eta oharrak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Amurrio, 2020ko otsailaren 27a

*Alkatea*

**MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**